BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

169

EBAZPENA, 2014ko urtarrilaren 8koa, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearena. Honen bidez, elkarlanean, S.L. entitateak «Itzulpenaren teoria: historia eta teoria garaikideak» lana euskaraz argitaratzeko esleitutako diru-laguntzari egindako ukoa onartzen da.

GERTAKARIAK:

Lehenengoa.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko maiatzaren 25eko Aginduaren bidez, goi-mailako irakaskuntzara zuzendutako euskarazko liburuak argitaratzeko laguntza-deialdia onartu zen, 2010eko ekonomia-ekitaldikoa (EHAA, 116. zk., 2010eko ekainaren 21ekoa).

Bigarrena.– Deialdi hori Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen 2010eko abenduaren 1eko Ebazpenez erabaki zen. Hala, bada, emandako diru-laguntzen artean Elkarlanean, S.L. entitateari emandako 4.095 euroko diru-laguntza agertzen da «Itzulpenaren teoria: historia eta teoria garaikideak» lana euskaraz argitaratzeko.

Hirugarrena.– 2013ko abenduaren 18an, Eusko Jaurlaritzan sarrera izan zuen Elkarlanean, S.L. entitateak aurkeztutako idatzia «Itzulpenaren teoria: historia eta teoria garaikideak» lana euskaraz argitaratzeko esleitutako diru-laguntzari uko egiteko.

ARAU APLIKAGARRIAK:

Lehenengoa.– Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, bereziki 90. eta 91. artikuluak. Uko egitea administrazio-prozedura amaitzeko modu bat dela adierazten duen atala.

Bigarrena.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko maiatzaren 25ko Agindua, unibertsitate- edota goi-mailako irakaskuntzara zuzendutako liburuak euskaraz argitaratzeko diru-laguntzen arau erregulatzaileak eta 2010eko ekitaldian eskabideak aurkezteko deialdia onartzen dituena, bereziki 23. artikuluko a) atala.

Hori guztia dela eta, honako hau,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Elkarlanean, S.L. entitateak aurkeztutako uko-agiria, «Itzulpenaren teoria: historia eta teoria garaikideak» lana, euskaraz argitaratzeko esleitutako diru-laguntzari buruzkoa, onartzea.

Bigarrena.– Prozedura hau amaitutzat ematea eta itzultze-prozedurarik ez hastea, aipatu diru-laguntzarik ez baita abonatu ezein kontutara, ez eta aurretiazko ordainketarik egin.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka, interesdunak gorako errekurtsoa jarri ahal izango dio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, aditzera eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urtarrilaren 8a.

Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordea,
ITZIAR ALCORTA IDIAQUEZ.